

# JANTOKITIK JANGELARA:

## ***SALBURUAK BERE SUKALDEA MANIFESTUA***

### **BAGA. Zer nahi dugu?**

Salburuako auzoko ikastetxeetarako (Arantzabela, Errekabarri, Salburua, institutua eta haurreskolak horrela ikusiko balitz) auzoan hutsik dauden dozenaka lokaletatik batetan sukalde profesional bat eraiki eta bertan auzoko ikasle guztientzat propioki sukaldatzeko aukerari bide ematea.

### **BIGA. Zergatik sukalde bat?**

Jantoki eredu industrial tradizionalak goia jo eta beheraka datorrelako. Ez ditu gure eskubideak eta beharrak inondik inora asetzen. Elikadura garraiatua oso kalitate eskasekoa izateaz gain, ez da batere sostengarria ezta osasungarria.

Oso garrantzitsua ikusten dugu kalitatezko elikadura osasungarri eta sostengarri bat izateko oinarrizko eskubide hori lehen lerrora ekarri eta bere defentsan proiektu sendo bat gauzatzea. Are gehiago, adinez txikiak diren haur eta gazteren onurarako izango bada.

### **HIGA. Indarguneak eta onurak.**

- Gaixotasunen prebentzioan eta osasunaren zainketan zein ohitura osasungarrietan urrats kualitatibo ikaragarria emango genuke.

- Katering-eko elikadura garraiatuarekin eta beroni inherenteak zaizkion interes ekonomiko ilunekin amaituko genuke.
- Produktu hurbila, freskoa eta kalitatezkoa kontsumitzeko oinarrizko eskubidea asetuko genuke.
- Auzoan eta inguruan inpaktu ekonomiko handia izango luke.
- Elikadura sostengarriagoa. 0 kilometroko produktuen eta komertzio lokalaren igokada nabarmena izango genuke.
- Funts sozialari ekarpena; soberakinak egoera zaugarrian dauden auzoko familientzat doan esleitzeko aukera edota prezio sinboliko baten truke, eskolaz kanpoko ekintzak neurri batetan finantziatzeko aukera emango lukeen proposamena. Hartara, eskola testuinguruko elementu segregatzaileenetako bati muga jarriko genioke.
- Diagonal honek berez duen balio hezitzailea ikastetxeetako proiektu pedagogikoetara gehituko litzateke. Beraz, sukaldea eta elikadurak duten karga pedagogikoa balioan jarri eta ikasleen formakuntza integralerako ekarpen gisa probestea edukiko genuke.

**LAGA. Oztopoak, zailtasunak, marra gorriak.**

- Gaiaren inguruan dagoen desinformazio eta aurrekari falta. Agenda kolektibo sendo bat eraiki beharra dugu, auzoa sentsibilizatu, indarrak metatu, atxikimenduak jaso eta proiektuari bide emateko baldintzak sortu beharko ditugu.

- Inbertsio ekonomikoaren beharra: lokala erosi/alokatu eta obra egiteko diru partida lortzea.
- Langileen birkolokazioa. Sindikatuen esku geratuko litzeteke beronen negozioazioa. Edozein kasutan, konponbidea honako termino hauetan gauzatu beharko litzateke: subkontratekin amaitu eta rebertsio planak bideratzea; eskoletako atezainekin, garbitzailekin zein sukaldariekin egiten bada, begiraleekin ere bideragarria den puntua da. Hortaz, gure proposamena lan poltsak sortu eta perfilatzea litzateke. Orain gurekin lanean dauden langileei lehentasuna eman eta plaza betzeko beharrezkoa den perfila lortzeko epeak adostu. Lan poltsa horiek, udaletxeak edo lakuako Hezkuntza Sailak kudeatu beharko lituzke. Ez dugu inolaz ere onartuko langile hauen lan baldintzak gehiago prekarizatzea.
- Menuen prezioan igoerarik ez. Bideragarria da kalitatezko elikadura osasungarri bat bermatzea kostuetan igoerarik aplikatu gabe.
- Lehengai eta produktuen erosketa, menuen eta dieten diseinua, ... Eusko Jaurlaritza zein enpresa pribatuen eskumenetatik at geratuko da. Beronen kudeaketa deszentralizatua izango da eta hezkuntza komunitate bezala adostu beharko dugu guk geuk, udalak, mankomunitateek edo bestelako eragileren batek kudeatuko lukeen.

**BOGA.** Interpelazioak eta ardurak.

Proiektuari bide eman ahal izateko eta berau gauzatzeko arduradunak Gasteizko udala eta Lakuako Hezkuntza Saila dira. Ardura politiko guztia euren bizkarrengan erortzen da hortaz.

- Gasteiz, Euskal Herriko hiriburuetatik ikastetxe publikoei dagokionean ikastetxe bakar batetan ere sukaldarik ez duen hiriburu bakarra da.
- *Green Capital* hiriburua izateaz harro agertzen da han eta hemen, baina elikadurari dagokionean, estrategia sostengarri definiturik gabe eta berau garatzeko asmorik gabe agertzen zaigu.
- Gasteizko udala Milango paktuko sinatzailea da. Horrek esan nahi du, besteak beste, bere hirian elikadura lokal, sostengarri, osasungarri eta bidezko bat sustatu beharra daukala, eta ez da egiten ari.
- Bizi dugun Krisi klimatikoaren aurrean errefente izan behar dugu. Gasteizek bere inguruan nekazal ekoizpen gaitasun ikaragarria du eta produktu lokalaz hornitzeko aukera paregabea dugu hortaz. Krisi honen aurrean urratsak eman behar ditugu gizarte gisa, eta pausu horietako bat inizatiba berritzaile hau izan daiteke zalantzarik gabe.

**SEGA.** Bide orria eta epeak.

- Udaberrian zehar Gasteizko udala eta Lakuako Hezkuntza Sailari interpelazio zuzenak egingo zaizkio. Euren ardura den neurrian, eurek bilatu eta eman beharko dituzte beharrezkoak zaizkigun erantzunak. Bilerak antolatu, proiektuaren berri eman eta berau bideratzeko eta errealitate bilakatzeko konpromezu sendoak hartzeko gonbitea luzatuko zaie. Ardura eta erantzukizun guztia

eurena da eta hortaz, gure agintariak egoerak eskatzen duen mailara egotea exijitzen dugu. Era berean, alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozial zein auzo elkarteekin bilerak antolatuko ditugu proiektuaren berri eman eta horrela balitz, atxikimenduak jasotzeko ideiarekin.

- Proiektua, ikuspegi teknikitik ikusita, erabat bideragarria da. Ez dugu hortaz sukaldea egingo den ala ez inorekin negoziatzeko intentziorik; sukaldea non, nola eta zein epeetan egingo den negoziatzeko prestutasun guztia adierazten dugu ordea.
- Administrazioen jarreraren arabera eta jasotzen ditugun erantzunen arabera, gure estrategia definituko dugu.
- Proiektua gauzatu eta 12 hilabeteko epean, gure ikastetxeetako hezkuntza proiektuak (IHP) berritu, eraldatu, egokitu edota eguneratzeko konpromezua hartuko dugu. Dokumentu honek, besteak beste, ikastetxe bakoitzaren identitatea, filosofia, xede nagusiak eta ingurunearekin harremana zehazten ditu, metodología, ebaluaketa irizpideak etab. bizkar hezurtzeaz gain. Ezinbestekoa ikusten dugu, hortaz, berau eguneratzeko konpromezua hartzea, eskola testuingurari, bere funtzionamenduari eta bertako eguneroko bizitzari zuzenean eragiten dion esparru garrantzitsu batetan aldaketa sakona eragingo dugu eta.

Salburuan, 2023ko udaberrian

*Salburuak bere sukaldea plataforma*